



BIZKAITARRAI
BIZKAIERAZ
68n. ZENBAKIA
IRAILLA
1983



MINISTERIO DE CULTURA
DELEGADO PROVINCIAL DE Vizcaya
Depositado a las 11 horas del día
26 de Setiembre de 1983
El Delegado Provincial,
Confirma: 



BILBO URIA

BOLIBAR ASKATZAILLEA

1

Gaur berreun urte jaio ziñean
Venezuelan Caracasen;
gaztetandikan askatze-grïña
zure barnean sortu zen;
Erririk-erri, mendirik-mendi
zaldiz t'oiñez ibil ziñen.
Españapean ziran sei erri
osorik aska zenduzen.

2

Orreigatik gaur mundu osoak
zaitu Bolibar txalotzen;
guztiak dabe ao batean
zure izena goratzen.
Zure egite arrigarriak
danak dituzte aitortzen,
askatasuna maite dabenak
gogoz dautzue eskertzen.

3

Euzko odola zeunkan Bolibar,
izenak dñn lez agertzen;
t'euzko odol orrek jarri zinduzan
bide barriak zabaltzen.
Gartsu-gogotsu ibilli ziñan
joputasunak zuzitzen,
Españapean ziran erriak
buztarripetik askatzen.

4

Ainbat euzkotar dozuz gaur emen,
ene Bolibar aundia,
zuri omena eitera gogoz
etorria da erria.
Pozarren dogu gogoratzen gaur
zure jaiotza alaia,
naiz urrin jaio izango zu
Euzkadirentzat semia.

5

Gure-Euzkadik ez du oraindik
askatusa ikusi,
baiña zorunez ikusko dugu
bere jabe ta nagusi.
Gure etsaiak joputsa-katez
nai leuke lotu ta ersi,
Zutik-anaioak, kate lokarriok
kemenki daiguzan ausi.

6

Bolibarrek lez ZEN daigun danok
Euzkadi askatutzia;
Euzkadi baita euzkotarrentzat
bakarra... geure-geuria.
Ezin ditugu ar aberritzat
España ezta Prantzia,
Gora ta gora gaur eta beti
Bolibar Askatzaillea.

IKURRIÑA, JAIK, LEGEAK

Euskalerrian ba-egoan udea nasai igaroteko guraria, baiña udaldi beroa izan dogu: Ikurriña dala-ta sortu diran gobeeretan, garratza; errietan jaiak kendu diranean, mingotza; eta LOAPA'ren auzia erabagi danean, oraingoz naikoa pozgarria.

* * *

Orain amabost bat urte dirala, gorabeera aundiak izan ziran españatarren bandera ori eleizetara ez sartzea lortzeko, Gamiz'ko Antolin Deunaren jaiak orretan aurrerengo zirala.

Atera zan eleizatik bandera ori eta orain udaletxeetan agertu bear dan ala ez dogu eztabaida garratza. Emen be urtenbidea eleizan izan zan antzekoa izango ete dan: Bakeagaitik, ez bata eta ez bestea. Ez da au naien dogun urtenbidea, udaletxeetan geurea agertzea egokitzat joten dogulako, baiña bakea be gauza ederra dala eta jaiak egitea be bearezkaio dala-ta, oraingoz erririk geienetan bide ori artzen da.

* * *

Lerro oneik idazteko orduan agertu-barria da LOAPA'ri buruz Laterri-Legearen Epai-Mikoak emon daberen erabagia, antza danez euskaldunentzat naikoa pozgarria ta españatarrentzat ez ain atsegintsua. Ze gauza bakana, Madrid'eko epaia Euskalerraren alde! Zer ete dago or?

Ba-dirudi LOAPA aundia kendu eta «loapa» txikiak sartuko dabezela eta bide orretatik doazela esan lei Ikastetxe Nagusietarako lege bideratzaillêa ta Irakaskintzarako LODE deritxon legea.

* * *

Oiñarri-oiñarrian zer dagoan ba-dakigu: Españatarren eta euskaldunen arteko alkar ulertu-eziña.

Arako XXIII Jon aitasantuaren idazkia izan zan PACEM IN TERRIS agertu zanean, begiak ondo idegita irakurri genduan arazo onen azalpena: Ez dala gauza erreza Laterrien eta euren barruan diran aberrien alkar-ulertzea; Laterriak alegin guztiak egin bear ebazala aberriaren izaera berezia indartzeko eta aberriak beti ez ebela ekin bear zirika laterriaren aurka.

Orduan arazoa urrin ikusten genduan, baiña gaur esku-artean daukagu.

* * *

Aitasantuaren idazki orretan galdera bateri dagokin erantzuna bear zala uste dogu: Zer egin laterriak aberrien eskubideak zaindu-bearrean zapaldu egiten ba'dauz, eta ez urte batzutan, gizaldi batzutan eta kondaira guztian baiño? Ez ete zan izango erantzun egokia: Alkartu ezin dana banatu?

Alkar ulertu-eziñik dabilzan ezkonduentzat ezkontza-austea onartu dabe españatarrak. Olako legeren bat bear litzake aberriaren eta laterriaren arteko arazoak bideratu ezin diranean be. Eta ez ezkontza barri baten billa jaoteko...

Dana dala, antxiñatik esaten dan lez «agiraka-makillaka» ba-doa Euskalerrria bere askatasunaren bidean aurrera ta aurrera, antxiñako laterrira lotuta gaukezan korapilloak askatuz. Baiña ez dakit indar bardiña daroen aurrerabide orretan euskereak eta abertzaletasunak.

GUMUZIO AUZUNEA

Lenago be Galdakano'ko auzune eta orreitako basatxonu edo ermita eta eleizatxuak dirala-ta, zerbait idatziak gora ZER gure aldizkari maitagarri onetan, baiña, idazki aretan aipatu baiño besterik ez genduan egiten Gumuzio, bertako txadon edo eleiza bitartez, orixegaitik gaurko onetan azalpen geiago adirazoko dogu auzune orretaz.

Gumuzio, Erletxeta edo gaur-egun txarto idatzita dagoan "Erlechek" izenaz gaiago ezagutzen dan auzunea, Bilbo'tik Donosti'rako bitxabalean, Galdakano'ko Udalletxe'tik Zornotza'ranta iru aneineurkiñetik sei'garren aneurkiñera, kilometrora, aurkitzen da eta, Larrabetzu'ranta bost aneurkin bitartean, iru alderdietara, mendiak dituala eta onein aldamenetam basetxe zabal eta lurralde mamitsuak ugari dituala.

* * *

Ogei eta amazapi basetxe ditu auzune onek, euretari-ko zortzi bikoitzak, bizileku bi dabezanak, nai-ta aldi onetan euretari-ko iru beintzat utsik aurkitu eta, beste batzuk sendi bat bakarrik dabela. Amar etxe ditu auzune onek besetxe bezala ez dagozanak, nai-ta eurotari-ko batzuk jatorrik baserriak diran.

Gaur egun, berrogei ta zazpi (47) sendi bizi dira Gumuzio auzune zabal onetan, sendi bi edo iru izan ezik beste guztiak bertakoak, euzkotarrak eta euzkaldunak dirala, nai-ta bertako "eskola"ri "eskerrak", erri-ikastolak esan nai dogu, eta guraso askoren itxitasunagaitik, bertako umetxu askok ez dau gaztelera baiño besterik egiten, ez dakie euzkerarik.

Zelango tamalgarria eta lotsagarria dan ori basetxez ornitutako auzune batentzet! Jaurti egizue gumuziotarrak zeun losorroa eta itxartu zaitezte eta alegindu, gitxienez zeun gurasoak erakutsi dautzuen euzkera zeun semealabai eta illobatxuai irakatsiten, EUZKERA geure izkuntza dalako euzkotarroi nortasunik aundiena emoten dauskuna.

* * *

Lenago aipatu dogun lez, erri-ikastola polit bi ditu auzune onek "Primo de Rivera" bakar-agintza edo diktadura sortu baiño lentxuago Bizkai'ko Aldundiak egiñak... Orduan bai euzkeraz erderaz lez irakatsiten zan bertan, baiña, arrezkero ez da ikastola orreitan euzkerarik entzun.

Antziñatik ditu edatetxe eta jatetxe bi auzune onek eta, beste edatxe txikitu bat Bilbao-aldetik erdira sartu baiño len eta, saletxe bat. Ez aundiak baiña, landola bi ditu erdierdian, basetxeetatik oso ur.

Bai ta ba-da bertan antziñako bolu edo errota bat be, nai-ta aldi onetan beratun urunik egin ez, ez dabelako artorik ez garirik eioten.

* * *

Gorago aipatu doguzan basetxe orreinan artean ba-dira egokiak, ikusgarriak; esate beaterako bertako eleiza urrean aurkitzen dan Zarandona sendiaren eta, orren aldamenen txadonaz aurrez-aurre aurkitzen dan antziñako Gumuzio-dorre-etxea ta abar.

Azkenez, —asmuz itxi dogu azkenerako,— eleiza apain baten polit baten jabe dira gumuziotarrak, Bernaba deuna Goi-jabola dabela, lenago egon zan basatxonu edo eleizatxu txikerra aurkitzen zan lekuan bertan auzokideak euren eskuz da txindiz egindako txadon apaiña.

Euren txindiz, esan dogu, ta alantxe da. Auzokide orreik izan eben laguntza, lan-gai ta txindiz bere ez zan guztira ogei anei edo milla lauerlekora eldu eta, nai-ta orain ogei ta amairu urte inguru eben eleiza ori, orduan bere ez zan txindi ori eleiza bat ez gitxiago ezer. Benetan erakutsi ederra gumuziotarrak orduantxe emon ebena.

* * *

Idazlantxu au idatziten gagozan egun oneitan asiko dira auzune orretako jaiak.

Barnaba deunaren oroimenez izaten dira jaiak, Bagil onen amaikan dan lez Deun orren eguna, gertatzen asiak ei-dira bertoko gazteak.

Zalantza barik, euzko jatorrizkoak izango dira orreik, bertako gaztedi ori geien bat abertzalea dalako.

Guk gaztetxutatik ezagutu genduan, gaurko txadon apaiña dagoan lekuan aurkintzen zan txadontxua, baiña, gu jao baiño askotzaz lenago orain dagonetik orduerdiko bidean, mendia gora Arrizurigaña'rako bidean eta zelaikada zabal baten erdian, gaur-egun "San Bernabe-baso" izenaz ezagutzen dan lekuan zan basatxonu ori (ondo ezagutzen doguz bera egon zan lekuko astarrenak), baiña, gabetan iges egiten ei-eban Bernaba deun orrek gaur aurkitzen dan lekura edo ingurura, lekuorretan nai ebala eleizatxu ori egitea adirazoten emonaz. Bildur ete zan ba auzune orretako Bernaba baso bakarti aretan bakarrik egoten?

Ipuñik asko doguz euzkotarrok eta, danak siñezgaiak ez badira be, asko bai oso politak eta ezaugarriak.

Gumuzio auzuneko biztanlerik gaien-geienak dira abertzaleak, edo gitxienez Euzkadi aintzakotzat daukenak, orduan zelan izan litzakez ain otsak, epelak euzkera arloan? Ea Bernaba deunaren jaietan ikusiten doguzan iñoz baiño euzkaldun sutsuago, orduantxe be lagun izango gaitue-ta.

ALTUNA'TAR JOSU

DOMINGO ITURRATE, ZUBERO

Dima'n, orain 70 urte, agostuaren 26'n, sendatza edo konfirmaziñoa artzeko eguna.

Oindiño bizi garanok zerbait esan geinke: An nintzan ni be, bost urteko mutikotxo.

Bildurtxoa naroiari barruan, artegatxo nengoan. Ez dakit nondik nora entzun neban erderakada au: «*Obispo de Roma, para que te acuerdes, toma*», esaten ebala obispoak sendatza emokeran eta zaplada aundi bat sakatu matraillan.

Ez zan olan izan: Aurpegira inko-tinko begiratuten neuntsan obispoari; luzengea eukala iruditu jatan. Ta matraillan ukutu leun ta goxo bat eginda bakean itxi ninduean, pozik bere aurretik alde egin neban.

Guretik sei neba-arrebok artu genduan: Zarrenak amabi urte ta gazteanak sei illabete.

Galtzadaz-galtzada jatsi giñan errira. Orduan bide-zabalik, kamiñorik, ez egoan. Igorretik Dima'ko plazara bai. Dima'tik Otxandio'ra, orduantxe ebizan urratzen. Plazatik eleizara be, Galtzadea. Olan auzune guztietatik.

Areik galtzadak garbi egozan
abarka leunez zapalduz.
Gora ta bera gaztek ta zarrak
ainbeste bidar zirrituz.
Eleizarako urrunekoak
lenengo eleizperatuz,
meza aurretik ingurutako
egi ta guzur kontatuz.

* * *

Ona emen egun orretako jakingarri batzuk:

GOTZAIÑA.—Sendatza emotera etorri jakun Obispoa Jose Cadena ta Eleta jaun agurgarria izan zan. Gazteiz'ko Obispoa. Felipe Gastañazatorre abadea ekarri eban lagun.

AITABITXI-AMABITXIAK.—Dima'ko alkate zan Aldekoa'tar antonio ta bere emazte Madariaga'tar Maria andrea.

DIMA'KO PARROKIAN ZENBAT ABADE.—Bost-bostak gogoan daukadaz: Murgotiotar Domingo jauna, andik laster jesuita joan jakuna. D. Franzisko, D. Martin, D. Luzio ta D. Bizente. Ta beste bat Lamindano'n D. Joan eritxona.

ZENBAT LAGUN KONFIRMAU.—932 lagun!!!

Aurreko sendatza Dima'n ogei urte lenago izan, zan:

1893'ko maiatzaren 21'n. Gazteiz'ko Obispo zan Ramon Fernández de Piérola jaunak emonda. Orduko Dima'ko Parrokoa Akesolo'tar Alejandro jauna.

Bitartean, 1899'ko garagarrilla edo uztaillaren 18'n, Igorre'n egon zan sendatza Pierola Obispoak berberak emonda, Emengo aita-bitxi-amabitxiak Igorre'ko alkate zan larrabetsuar Joan Ruperto Zarandona ta bere emazte Bizenta Garai-Yurrebaso andrea.

* * *

Dima'n, ba, 1913'ko agostuaren 26'n, 932 lagunak artu genduan sendatza. Ez da errezkada laburra be.

Jazokun au dala-ta, zenbat arlo goldatu ta areatu geinkezan: auzo, sendi... ta ab. Lagun orreitatik zenbat abade, praille, monja. Zenbat gizon *gizon*, zenbat andra *andra*...

Danen artean, lagun bat agertzen jaku **ARGI, DIZ-DIZ**, eguzkiak lez guztiok argitzen gaituana: **DOMINGO ITURRATE, ZUBERO, IRUKOIZTARRA.**

Onk be egun orretan sendatza artu eban, beste bost bere anai-arrebakaz batera: Pedro, Justo, Maria, Nikolas eta Leandra'gaz.

Gogoangarria egun au! Laster gogoangarriagoa Aita Santuak datorren urriaren 30'n **ZORUNDUNEN** artean jarri dagianean.

Poztu gaitez guztiok, poztu Dimostarrok, poztu batez be **DOMINGOGAZ** batera **SENDATZA** artu genduanok.

Ez aitzu, orraitio, **SANTUAK** goralduteko biderik beiñena euren antzeko izatea dala. Oraingoz, bere irakatsi au gogoratu ta egitez bete daigun: «**EZ DAUKAT ZETAN EGON IÑOREN ZEREGIÑETARA BÈGIRA JAUNGOIKOAK NIRI NEURI ZER ESKATZEN DAUSTAN BEGIRA BAIÑO**».

Orain, **DOMINGO**, zerukoakaz pozik zagoz or betien.

Lurran garanoi lagun eiguzu zeuk lez zintzoki jokutzen.

Batez be zeugaz konfirmatuok ikus gagizuz bizkortzen,

bizitz onetan zuri jarraituz,

zerun be zeugaz alkartzen.

DOMINGO AGIRRE
KALMELDARRA

LEIZAOLA BERBAZ

Maiatzeko arratsalde eder bat, 1937'garren urtean, Frantzian: Bordele, Burdeos'ko kale luze batetik zear joiazan aizta bi areik, konturatzten ete ziran Udabarriko egun eder aregaz?...

Jai egunari egokionez dendak utsik eta itxita ikusteak, uri aundia illunago ta goibelago eritxen neskatilla gazte biai.

Nekatu-nekaturik joiazan: batak, esku bakoitzean maleta bat eroian; besteak, maleta bat esku baten eta zorro bat lepoan.

* * *

Pixkat lentxoago eldu ziran portutik Bordele'ko geltokira. Eta an, tranbian sarturik, kale luze aren asikera jatsi.

Andixek joan bear abela ta, antxe itxi ebazan tranbiak. Eta eurak, joanda joan joiazan, noizik beñean agertzen ziranai itaun bera egiñik: «Mese dez, 'Pas de Saint George' kalea?» Eta erantzuna beti, aruntzago, urriñago zala...

* * *

Alango baten baiña, eldu ziran: kalearen izena idatzita ikusi eben oinbidaren beste aldean. Eta antxe, egin egiñean, kale aretako bigarren atxean, eurak billatzen ebiltzan ostatuaren izena irakurri. Egun batzuk lenago, araxe elduak ziran euren izekoak lengusutxoakin eta eurakana joiazan, Euzkadi arriskutsuan guraso ta nebak itzirik.

Orduan, neska gazteenak, lepoko zorro ta maletea lurrean itzirik, maleta gaiñean jesarri eta aizteari esan eutson: «Nik ezin dot geiago! Joan zeu bakarrik, datozala nire eske!» Aizta

URTEAK BARRU ONGILLE EZEZAGUNARI ESKER ONEZ: MERCI MONSIEUR! ESKERRIKASKO. JAUNA!

nagusia orduan, berak be pardelak lurrean itzirik, joan zan otelera. Laister zan eldu barrero aiztearengana ta abots illunez esan: «Ez dagozala! Atzo alde egin ebela, Baiona rantz edo!». —«Eta zer egin orain?»—. Eta nagusiak erantzun: «Baionara joan!».

* * *

Eta euron bidea eroian gizon bat etorrela ikusirik, beragana joan eta beste barik, maleteruari egiten jakonez esan eutson, frantzes oguzkera onenaz: «Monsieur, mesedez, eroango dauskuzuz oneik, tranbiraiño?»...

Berak, geldituta, ezer erantzun barik, goitik bera eta betik gora begiratu ebazan neska biak: Zer uste izan ete eban gizon arek?... Ze itxurra artu ete eutsen aulduta, itxusi barik ta baltzik jantzirik egozan neska bi arei?... Bata, oso gaztea zan, neskatooa... Jantzi baltz areik, jaioteritik urten eziñik beste aizta bat egazkiñen menpe geratu zala esan gura eben. Eta soiñeko illunoi esker, itxasontzian lurrean etzunda etortean baturiko ikatzen zikiñak ez jakezan ikusten...

* * *

Konturatu ete zan gizon a, non goak eta nondik etozan neska biok?... Errukitu egin ete zan? Ala ezetik esaten ez ete eban jakin?... Dana dala, neskok begiz aztartzea amaitu ebanean, isilik, berba bat esan barik, zorro-muturra maleta baten kirtenetik sartuta, bere lepo indartsu-gaiñean jarri eban. Geratzen jakon eskuan beste maleta biak batera artuta eroan egin eutsezan, kalean zear, tranbirai-

ño... Eta antxe, tranbia geratzen zan lekuan lurrean itzi...

* * *

Bat-batean, zelan jakin barik, neskok talde baten erdian korrua eginda aurkitu ziran, zer ziran eta nondik etozan esaten: euron erriaren ondamedia agertzen... Franco'nak, faxistak, alemanak egiten ebazan triskintzak... Aizta nagusiak, frantzes onean azaltzen ebazan eta txikiak be, bai berak al eban frantzesean...

Eta entzuleok, ixil-ixilik, begiak zabal-zabalik, serio-serio entzun egiten eutseen... Mutuak ete ziran une aretan, Burdeos'ko guzti arek?... Ala, neskatilla areik, jendea mutu biurtzeko almena ete eben?...

«Maleterua», euron artean nesken azalpenok entzuten geratu ete zan, tranbia eldu artean?...

Ala, bere mesedea egin ondoren, ezer entzun barik bere bideari jarraitu ete eutson?

Zer izan ete da beraz?... Bizi ete da?... Ziurretik zarra izango da orain...

Dana dala, eskerrikasko esateko gauza izan ez ziran orduko gazte areik, urteak barru, biotz-biotzez diñotzue, samaritar on orri: «Merci monsieur, Eskerrikasko jauna!».

Aurtengo Gorpuzti egunean, Euba'n, izan zan jaietan Leizaola'k, beste batzun artean, egin eban berbaldiaren ondoren bururatu jatan idazlan au idaztea, orduko jazokizunak gogortuta. Leizaola'ri gure esker ona erberteratuta egon zan taldearen gomutapena izan dualako.

MAITENA'K

BERTSO BARRIAK

ZURIONA, NUN?

- | | | |
|--|--|---|
| 1. <i>Zorion billa gabiltz
andra-Gizon danok.
Auxe dogu gosea
lurrean garanok.</i> | 4. <i>Jakin gura dozue
bizitza au zer den?
Gaba gogaitgarria
ostatu txar baten.</i> | 7. <i>Lurrean zoriona
ez da aurkituko.
Zeruan, bai, benetan
gara asetuko.</i> |
| 2. <i>Ariñ-aringa goaz
zorion atzetik;
eta eldu eziñagaz
gabiltza burutik.</i> | 5. <i>Arantzak asko dira
lur zital onetan.
Geuk be, ba-doguz naiko
geure biotzean.</i> | 8. <i>Zeruagan siñistu
ta bera itxarain,
ezin geinke benetan
euki emen samín.</i> |
| 3. <i>Jaunak beretzat eiñak
gara mundutarrok.
Arraiña ur barik lez
gauz ilten guztiok.</i> | 6. <i>Ezin kendu izango
doguz, lur-gañean;
zeruan bai, seguru
ara eldutean.</i> | 9. <i>Bizitza gozotzeko
lurrean, zer egin?
Goian pentsa, eten barik,
¡Olan beti ekin!</i> |

IRU AMA

- | | | |
|---|---|---|
| 1. <i>AMA! Berba beteal
AMA! Itz gozoal
Iñorentzat ez dago
itz bigunagoa.</i> | 4. <i>Agotik ezin dogu
kendu arriskuan.
Berak gozotzen gaitu
garratz momentuan.</i> | 7. <i>Eurakin gozotzen da
bizikera latza.
Gurekin ez badira,
bizitza, garratza.</i> |
| 2. <i>Maitasun asko dago,
ez amaren lako.
Geienak, beintzat, dira
ziur, mamin bako.</i> | 5. <i>Emen ama bat dogu,
zeruan bestea;
Andra Mari onena,
maitasun betea.</i> | 8. <i>Irugarrena, barriz,
Ama Euskadi dogu;
emen jaio giñan-ta,
semeak gara gu.</i> |
| 3. <i>Auxe ikasi dauna
umeak altzuan
eta auxe diñoguna
eriotz orduan.</i> | 6. <i>Emen garan artean,
ama biak bear;
eurakaz egon ezik
diardugu negar.</i> | 9. <i>Ona emen iru amak,
maite doguzanak.
Eurakin, egiz, gara
pozik gagozanak.</i> |

SABIN ETA ERLEA

Marmalaria

Erleak eztenakin
Sabin mindu eban;
baiña guztia bere
kalteko izan zan.

Ezin eban atara
sartu zan eztena,

ta, beretzat, sartzea
izan zan azkena.

Olan jazoten jako
marmalariari:
min emon besteari
ta, azkenez, berari.

Ez jako fiatuten
ekiten daunari,
ta ikaria dautsogu
mar-mar dabilnari.

AGINTXONA

SAN ANTON: 550 URTE

Urte onetan jai bereziak ditugu, eleiz onen jaiotzatik 550'garren urtea gomutetan dogu ain zuzen be.

Bilbo'ko Uri zarra Diego Lopez de Haro'k egin aurretik emen orain San Anton'go zubia dagoan inguruan etxe banakak bakarrik egozan bastartxoari, Bilbo esaten jakon.

1300'an Lopez de Haro'k, Begoña'ri lur zati bat kendurik, Bilbo urizarra, 7 kale ebazala, arresi ta guzti sortu eban.

Kaleen erdi erdian orain Katedrala dan, parroki ederra ipiñi eben, Santiago'ri opaldua.

Bilbo uria sortu aurretik be, emengo arrantzale ta baseritarren artean Santiago'k onespen aundia eukan eta orain zubia dagon ondoan ba-egoan osatetxetxo bat, batez be Europa guztitik Konpostela'ko Santiago'ra etozan erromesai lagunduteko.

Euretatik asko ta asko, baso ta bidetatik zear oiñez etozelako gaisorik edo, oiñak guztiz zaurituta etorten ziran. Euren atsedean ta osasunerako egin eben Bilbo'tarrak osatetxe ta elizatxo bat Santiago'ren omenez.

Bilbo uri zarra sortu ta laster emengoak, arresitik kanpora, Ibaizabal erreka ondoan egoan antxiñetako gaztelu zarra bota eta Eliza barri bat egin eben leku berean.

Eliza eder au San Anton'eri eskiñia zan emen inguruan bizi ziran baserri-tarrak batez bere lagundutearren.

Ain zuzen be San Anton da lur ta abereen zaindaria.

Eliza au gotiku tankerakoa da, oraingo dorrea barroko tankerakoa ta ate nagusia errenazimentu tankerakoa.

Oneik biok geroago egiñikoak.

Emen danak ezagutzen dozue San Anton eliza bera dalako alboko zubiagaz batera Bilbo uriaren ezaugarri, ormarri-eskutua. Bilbo'ren ia 600 urteko edesti-historia Santiago ta San Anton'go eliza inguruan egin da.

Askok ez dakie ta jakin bear dozue antxiñetatik, Bibao'ko Zaindaria, Santiago dala.

San Anton Eliza barrian lenengoz meza esan zan 1433 ko dagonillaren 5'ean, orregaitik gure jai aundiak aurtan 550'garren urte urrena dogu-ta.

Jai egitamua da: On Anastasio Olabarria'k oraintsu argitaldu dauan liburuzkatxoa azalduko dau (liburitxo au San Anton'etzaz egiña da). Itzaldia, jorraillean; Ekaiñaren 5'an, eliza onetatik urten daben abade, leikade ta lekaiemeen omenaldia, Dagonillaren 5'ean, Elizaren urteurren egunaren ospakizun nagusia, elizkizun berezi ta aldara sagaratzeagaz eta urte-azkene-tan emen il diran guztien alde meza, nagusia.

Aurtan baita aundikiro ospatuko dogu Aita Kardaberaz beneragarriak Jesus'en Biotzatza egin eban itzaldia- ren 250n. urteurrena (Itzaldi ori eliza onetan egin zan 1733n. urtean, ekaiñaren 12'an).

San Anton egin zanean emen danak ziran euskaldun euskaldunak, orain geiena galdu da. Apurtxo bat biztuten asi ete dan nago, zorionez, eta San Anton izan da bultzagille lenengo lenengoa.

Iraun begi zutunik eliza onek, beti euskaldun ta Jainkozale, mundua mundu dan artean.

AUPA SAN ANTON DILIN DALAN KANPAIAK

San Anton dorrean.
Zergaitik poztasuna
gaur gure elizan?
bosteun berrogetamar
urte bete dira,
ordun eliza onek
bere asiera.

* * *

Zenbat igali eder
Bilbo'ko errira
parroki onen bidez
urte luzeetan.
Goratu Jaungoikoa
anaiak maitatu,
danok bat bat egiñik
siñismen indartu.

* * *

ARBASOAK egiña
eder da San Anton,
Lerden agiri dala
tinko, ibai ondón.
oñarri ta biotza
dala emen Bilbon.
artu beiz guregandik
txalo ta zorion.

* * *

Ibaizabal erreka
berari mosukal
Gero gure agurra
daroa, mundura.

LORERIK EDERRANAK

Ba-ditu San Anton'ek
edergarri onak
Euretatik ederren
txit sagaratuak.

Barri Onak diñonez
gutzizko ederrak,
On ta Bake ereillen
diranaren oiñak.

San Anton'en erraiak
gutziz emonkorrak,
sagaratu mordoak
emen osotuak.

Abade ta lekaide
lakaime bigunak,
mundua aldatuten,
emendik urtenak.

San Antoneri, Jauna,
emon gaztetasun,
bere sabel, erraiak
biurtu umedun.

Aro eder barri bat
gaur bertan asirik
sagaratu barrikaz
poz pozez beterik.

Parroki batentzako
lan eder ederren
sagaratu gizakiz
mundua beteten.

GALLASTEGI'K

EUSKERA GAISOA

BILBAO'RA

Ez naiz idazlaria, alan uste dot nik beiñik bein, baiña irakurlea bai, nere betiko atsegiña izan da, euskera irakurtzea.

Nondik aurkitu neban euskeraren zaletasun au?

Ba, lenengo aldiz Bilbao'ra joan nintzan garaian.

Nere Ondarru kutun onetan, euskeraz azi nintzan amazortzi urtera arte, alako baten Aitak, Bilbao'ra bialdu ninduan osabaren etxera illabeterako. An agertu nintzan nere osaba ta lengusu-artean. Euzkeraz ez ekian iñok, gastelar itz guztiak, euskel ikurragaz egiten nebazan lez, jakiñekoa zan irribarrez artzen eustezala nere esaerak. Ni nintzan ba oiandar (selvático) bat lez.

EUSKERAZ ZELAN?

Gabiño nere lengusu au, ni baiño gaztetxuago da. Onekin egin nebazan nere lenengo ibillaldiak Bilbao'n.

Gabino onek egin zituan alegiñak gure uri-nagusia erakusten.

Atxuri-inguruan bizi ziran. Asi zan ba. —Mira esta es la estación del tren. Bueno y, ¿cómo se dice TREN en vasco? TRENA.

Olan igaro genduan ibillaldirik geiena, bera galdetzen ta ni erantzuten, baiña, lautik iru gitxienez gastelar itzak, TRENA lez zan ba «ARENALA» «BIZIKLETI» «TEATRU» «AUTOMOBILLE» «ZINI» «TELEFONU» eta ain bat gauza geiago.

Garai aretan ez egoan URRUTIRUDIZKI'rik baiña egon izan ba'litz, erantzungo neban nere laiñotasun osoaz «TELEBIZIÑOI». Gaur. «TELEBISTA» esan bear eida, ori dalako itzik jatorrena, olan ba'da URRUTIZKIN be ezingo dogu esan «TELEFONU» edo obeto esanda, Federico Kurtwig'en ereduaz «EUSKARA BATUA»n «TELEPHONU» esan bearko dogu.

Esaten nengoan lez, Gabino onek egiten eustazan galderak, lautik iru, gastelar izkuntzan erantzuten neutsazan nere errikoi osotasun guztiaz.


Gaurko «EUSKARA BATUA»ren antzera, baiña «H» barik, «H» au, Kurtwig'k bakarrik erabiltzen dau, ba, J. San Martin ta beste ostantzeko «H» zaleak, ez dabe aoskatzen. San Martin jaunak, Eibar'tar aditz jator zoragarria erabiltzen dau izketan, iñoiz «EUSKARA» esan gura dauanean, igartzen jako, aleginddu egin bear dauala.

* * *

ETXERA

Osabaren etxean euskerari buruz jostakatzen asi ziran. Eldu jatan une gogaitz bat, eta etxeratu egin nintzan bereala oso naigabetuta.

Gaurko euskal giroa be, olan ikusten dot, len, beiñik bein, ez zan ain zala nere okerrak zuzentzea; len, euskal



- Euskalerrria'ren bazterrean, gobia aranean, Angosto'ko Amaren Santutegia dago.
- Euskaldunen artean Andra Maria'ren Santutegi ospetsu asko dagoz, onein artean bat Angosto.
- Nai dozu jakin Angosto'ko Amaren Kondaira dana, labur-labur?
- Aita Letona'k argitaratu dau liburutxu polita gai orreri buruz, euskeraz eta erderaz, Araba'ko Lege Zardun Aldundiaren laguntzaz.
- Bizkai'ko euskerea da, oiñean itz ez-ezagunak azaltzen dirala.

idazle guztiak, eredu batekoak ziran, zuzkidatz edo idazkera erabakizun baten idazten ziran lan guztiak, ori bai, bakoitzak bere euskalkian, euskaldun guztion ulertzalleko izkuntzan ta, gaur..., zer?

Euskal izakera guztia, naspilduta dago. Barrogeitak urte illunpitsu oneik, sakabanatu gaitue, goizetik gabera azaldu dira «jakintsu» geiegi zaparradaka, burua galduta lez, jakin barik nor, nor dan, len egindako lan guztiak aldatu nairik, onerako edo txarrerako, bear ba'da zin egindatu.

Olan zirikatu eban gizaldi barri geiena Federico Kurtwig orrek, bere «VASCONIA» orregaz «EUSKARA BATUA» agertuaz, baiña, berrogei urteko illuntasunak, jatorrizko abertzaletasuna galduta egoan lez, ez eban euki ostoporik gure Sabin maiteagaitik esan zituan gaiztakeri guztiak esateko.

* * *

GARAILLE NOR?

Kurtwig orren aginduak urten dabe garaille. Olan gagoz bai, Sabin'en omenaldietan aurrenengo ibilli diran «abertzalekeria»ren laguntasunarekin, EUSKERA APURTU DABE.

Ikusirik gaurko euskeraren giro lotsagarria, Koldo Mitxelena jauna, ikaratu ete da ba...? Dana dala «UZEI» terrak or dabiltz goragoraka. Gure Mitxelena jaunak ikusi al dau «EUSKARA BATUA» ONDAMENA DALA?

GABIREL MANTEROLA, OLERKARI

GIZONA

Gizona ez da jatez bakarrik bizi, ezta itzez bakarrik be. Ba-dira beste jardun batzuk oindiño gizonari barne-bizia iraunazoteko erabilli oi ditugunak. Nor bik —adiskideak ba'dira batez be— noizik beinka alkarrri egiñiko ikus-taldiak ez ete dira bizi emoilte, bizkortzaille bikain? Orrela egiten geuntson guk alkarrri, Gabirel-ek eta nik, a Zeanuri'n eta ni emen Larra-n bizi izanik; gaur ni joaten nintza-kon ara eta biar bera etortzen jatan ona, autu gozotan alkarrri bizia ezarten. Literaturaz izan oi zan geienbat gure alkarrizketa. Oso jakintsua zan Manterola. Eta nik esango neuskizu, niretzat beñik-bein, etzala norbere jakituria merke saltzen dabenen artekoa.

Nik, nere V-garren «Euskal Literatura», aren fitxa egiterakoan, onan idatzi neban: «Langille zail, nekegaitz eta euskaltzale trebe. Apaiz ona, ta apaizgoari dagozkion eginkizunai gaztetatik lotua, Kristoren itza ta Jaungoikoaren erreñua, lumaz ta mingaiñez —autortegian atan be—zabalduta ta arimetañ bizi-azten alegiñak alegin egiñikoa. Gaur berton, 86 urte bizkar gain daramazkin arren, ortan ari izana. Euskaltzale eredugarria, euskeraren onerako batzar guztietara jo oi zuen beti, bere agiriz ta solasez batzarkideak poztu, azkar-azi ta indarra eman naiean».

Zeanuri'n, lurrez, giroz ta gizasemez eder dan euskal erri txukunean jaio zan Manterola, 1890-3-17-an. Umetan bere errian azi ta ikasia dogu, goraso Jainko-zale ta langilleen magalpe arduratsuan. Gero, eliz-deiak bultz-eraginda, Galdako'n bere osabeagaz ikusi zituan latin iru urteak. 1905'tik 1913'ra, iru urte Filosopi ta bost Teologi ikasten egin zituan, 1914'an eliz-gizon egiñik, Prudentzio Melo Gasteiz'ko gozain jaunaren esku ezartez abade egin zan.

Abadetza artu besterik ez, Eibar'ko apaiz-laguntzaille ta moja kapellau izantatu eben. Ementxe bizi izan zan, arima-arloan buru-belarri sartua, eta euskal idazlaritzan lanik asko egiñez, 1936'ra arte, orduko gerra mingotsa sortu arteño. Garai aretan Ingalaterra'ra jo eban, Eusko Jaurlaritzak bialduta, ume-talde batekin, Bizkaiko eta inguruetako umetxo areik zaindu egizan. An egon zan ondoren, leenengo umetxoen ardura izanik eta gero arimazaintzan, izlari ta autorle, 1948'ra arte. Urte onetan biurtu zan Euskalerrira ingles izkuntzaz eta ainbat liburuz jabe-tua.

Arrezkero Zeanuri'n bizi izan zan, elizan abadeai lagunduz eta etxean einbat euskal lan osotuz. Zeanuri'n ber-

ton il zan 1977-7-6'an. Urrengo egunean ospatu ziran eliz-kizunak Andra Mari elizan, arratsaldeko 7,30'etan. Juan Mari Uriarte gotzain ordeak euki zituan mezea eta itzaldia, ainbat eliz-gizonek lagunduta. Erri osoak beteten eban elizea. An ziran Euskalerriko idazle punterengoak, Euskaltzaindia buru zala. Euskaltzain urgazle zan.

EUSKAL IDAZLE

Umetatik dakargu bakotxak geure deia, edo-ta ontara naiz artarako trebetasun aparta. Eta ori izaten da, naizta beste lan eta ogibideko arazo batzuetan buru-belarri ondo sartua izan, guri berarizko poza ta atsegiña dakarskuna, bizitzako ordu larri ta latzetan sarri. Geure «zorakeritxo» deritxogo orri. Eta alan da, izan be.

Manterola, bere eliz-ardurazko lanai amaia emon ondoren, beti ta bizkor idatz-arlorra joian. Bizitz osoan erabili euskun luma eskuan. Ikasle zala asi zan idazten, euskeraz batez be. Eibar'en egoala eta Zornotza'n «Jaungoiko-Zale» apaiz bazkuna sortu barri, bere «Jaungoiko-Zale» aldiskariaz, emen ekin eutson iñoiz be aspertu barik, idazteari eta gero asteroko biurtu zanean «Ekin»'en. Zenbaki bakotxean bi ta iru artikulu agertzen dira gai askotaz idaztitako lanak, G. Manterola'renak nunbait. Izen-orde asko erabilli zituan lanetan: «Gama», «Mitarga», «Urigoitia», «Gabirel», »G.»... Gerra aurretik eta ostein egunero-ko ta aldizkari oneitan beintzat idatzi ebazan lanak: «Euzkadi», «Zeruko Argia», «Yakintza», «Argia», «Karmel», «Olerti», «Agur»...

Ugaria zan, esan dogunez, Manterola'ren luma. Liburu lez ez eban, prosaz beintzat, askorik argitaratu. Baiña, euskal idazle lez, or-emen sakabanaturik itxi euskuzan lanak ez dira gitxi. Itzulpen asko burutu ebazan, bai euskerara eta bai erderara, inglesetik eta prantsesetik. Mateo Muxika'ren gotzain-idazkiak eta Morcillo'ren banaka batzuk berak euskeraratuak dira, bizkaieraz ain zuzen.

OLERKARI

Olerkia ederra da-ta, olerkariak be egiazko olerkari izateko, arima eder baten jabe izan bearra dauko. Arima-

ren edertasuna naitaetzkoa da. Zergaitik? Lauaxeta'k onela: «Arima ederra ez dutenak gauza oroen lillurarik ez dezakelako azaldu». Itz mee ta neurtuak, bai, baiña besterik ez. Eta olerkariak diñotse: «Olertia sentitzen baiño len, ura bizi izaten ikasi dezagun, geronek bizi izan ez degunik, ezin esan dezakegu txukunki. Ertilari trebeak baiño lenago gizon onak nai ditugu, ontasuna utsik baita elertia. Nork beraren gogoia ederrez ez badu janzten, azaletiko ikusgarriak nola egingo ote dira ziztada edo zirrara».

Ez kendu, mesedez, pixurik itzoi. Errazoiz zamatuak bait dituzu. Gure Manterola olerkariari egoki ta ondo yatorkozanak. Arima eder baten jabe zalako, eder utsitu eban bere barrua, bertsozko sorpen ugari, bikain, sakontan. 1921'an 113 orrialdeko liburu bat, «Goi-izpiak» eritxona eskiñi euskun, eta sarreran onela iñoan: «Giza-biotzak yoranez beragandu gura dituan Egia ta Zorunak, ludi onetako gauzetan susterrik eztauke; eguzkiaren izpi be-roen antzera goitiko igaliak dira; norberagandu gura dituanak, ba, nai ta nai ez adimen-biotzak goirantz yaso bear. Auxe dala-ta, gai onetzaz, urte bi oneitan egin dituan itz-neurtu geyenak, aizkidetasunak bultzatuta, egilleak idaztitxo onetan esitu dituanean, GOI-IZPIAN izentzat ezartea otu yako».

Gure inguruko gauza guztiak be «eder sortu ziran—diño Lauaxetak— Jainkoaren laztanez, aren begiak unkitzen duena zoragarria dala. Zeruko ats samurrak zainitzen ditu ezilkor izaki guztiak, ustelkorrak diran aren... Ludiko gauzak ederrak izaki, oek kopiatzeko arimak ere ederrak izan bear du. Loi dan ispilluak nola erakutsiko digu edertasunaren antza? Gure arima ispillua baiño ez degu.geuregan antzeztuteko gauza orok egiña. Beraz, garbi bego».

Dudamuda bage esan daikegu, ba, Manterola'ren lumatik urtendako guztia ederra dala, naiz prosaz naiz itz-neurtuz biribildua. Goian aitaturiko liburua agertu zanean, kritikalari batek onan agertu eban bere eritxia: «Jaungoikoa ta euskera benetan maite dituezenentzat guttiz egoki ta atsegingarriak dira *Got-izpiak*. Izkera garbi ta leunezko lorez apaindurik eskeintzen zaizkigun neurtitz auek entzumena atsegindua biotza berotu, ta burua goi-argiz beterik uzten dute» (*J. B. Deya*, 1923, 350 or.).

Nik ez diñot Lizardi, Lauaxeta ta Orixe'ren maillako, goi-maillako olerkari danik gure Gabirel, baiña ez daust iñork ukatuko olerkari arin, sakon eta atsegiña danik. Eliz-gizona izan zan, Jainko-zale sutua, arimak eta erria, benetan maite ebazana; kutsu ori dariola osotuak izan bear, nai ta ez, aren koplak. Ona lan au idatzi nairik nabillelea esku artera jatan «Ber-piztu da» deritxon olerki au, 1957'ko jorraillean «Zeruko Argia»'n datorrena; irakur egizu; bederatzi aapaldi ditu, eta emen dozuz sei:

Poztu gizona! Poztu barrendik!
eldu da egun alaya,
Kristo'k biztuaz lortu daualako
eriotzaren amaya.



ADISKIDE AUNDI BI:
Manterola ta Barandiaran.

Oben estuntzak urratuteko
il zan lotsariz Gurutzean,
bere bizia geugandu daigun
illen artetik biztu zan.

«Non dok, eriotz, ire eztena?
Non yagok ire garaitza?
Non dozak ire arrokeriak?
Non yagok ire ayotza?»

Zetan dok ire nausitasuna?
Nor dok gaurgandik menpeko?
Kristo'k biztuaz ondatu au bein,
ondatu bein ta betiko!

Gaurtik aurrera, gizaldi orok
alaitasunez beterik,
esan leikio eriotzari:
«Ez yaukuk ire bildurrik!».

Bake ta poza, zorion, aintza,
Kristo'k berpiztez dakarsku;
«aragiaren biztuerea»
biotzez autortzen dogu».

Mueta askotariko gaiak dantzaten ditu, sakon eta bizkor. Izkuntza aldetik ez dau utsik, ez joskeran, ez neurkeran bertsoz diarduanean. Nekearen nekea bear da gero, itz-neurtu barruan gogapen trinkoak eta biotz-zirrara bi-ziak mugatu ta eder jarteko. Gaur, neke orri muzin egiñik, bertso zurira jo oi dau eskok. Zein bide jatorrego?

AITA ONAINDIA

AMORE BIETA'KO ITUNBENA (VI)

Uribarri Gudalburua balaz zan zauritu ta il egin zan.

Galtzeori eziñ-osatua izan zan. Valde Espina'ko Markes'ak pozik artuko eban aren zeregiña.

Bizkai'ko buru-zagien begiko etzan Valde-Espina'ko Markes'a. Alan da be, Naparra'ko batalloien Gudalburu Carasa'k naitaez Bizkaitarrak ezarri gura eutsen Bizkai'ko Komandante Orokor lez On Karlos'ek orretako eskubidea emon eutsalako.

Baiña Bizkai'ko-Aldundegiaren Lendakariak isillean danak azpitik esaten ebena, aurrez-aurre, gizonkiro esan eutson.

Markes Gudalburuak gudaketako zelaian ez eban irabazi orrelango mail lorrerik Anai-gudea amaitu zanean kapitai maillara bakarrik eldu zan.

¡Kondaira au egiten dagon edeslari apal oneri zenbat gogarte yatorkozan burura!... Orduan baiñaagintari Bizkaitarrak ba-euken adorea, kemena ta gizontasuna!... Orain, barriz, Jaularritza'ko giputz-naparrak gura dabben guzti-guztia egiten deuskue. Eta geure diruaz gure Euskalki ederra, Bizkaiera zatitu egiten dabe; eta Etxenike'k aginduten daualako ikastoletan batua zantarra irakatsi ta teleikuskiñean eta pelikuletan batua edo gipuzkera osotua ta itsusia egiten da.

Eta gero nora doaz ta zelan darabillez gure eun mille milloak. Gure etxeko teillatuak itoxuraz beterik, Bilbo'n ain bear-bearrezko Metroa egin barik, bitartean kalean gurdiak ezin ibilliz, ta Bilbo'ko ta Bizkai'ko ibai-errekak egurats-zerua arnasea artu-eziñeko ke ta zikiñez loiturik..... Obeto litzake guri dirua kenduten deuskuenengadik aldendu ta egin Araba'n egiten dabena; eta Sabino Arana Euskadi'ren irasleak gura ebana, Suizan lez Euskadi'ko eskualdeak euren diruaren ta buruaren jabe izan, guztion arazoetan ondo betuta. Baiña alderrai itxita jarraitu daigun. Ez gi-



putzen ez naparren laguntzarik ez dala aurkitzen eta Liberal baltzak indar ta talde asko batuten zituela jakinda, Karlatar Bizkaitarrak Bizkaia'rantz biurtzea erabagi eben.

Ordurarte zoriona irribarrez eukien: garaitzarik garaitza ebiltzan toki guztietan On Karlos'en ikurriña su-ta-gar, gogo beroz jasoten zala.

Baiña su-ta-gar ori gero ta geiago gitxitu ta amatauten yakoen. Durango'ko batailloen artean 300 igeslari egin ziran, ta epispena buldurgarriro agertu zan. Ubidea'ra alduta, Bilbo'ko batailloen arteko ofizial bulartsu biozdunenak euren nagusien aurrean aurkeztu ziran ta ezpatak emon eutseezan eziñezkoa eritxoek ekingta itziaz. Bizkaia'n asi ziran esaten Aldundegiko ordezkariak borondatezko gudariakandik aldunduta, Prantzi'ko bidea artu ebela. Barri guzuzeko onek biotz-ikara andia egiten eutsen Bizkaia maite ebenai.

Olan eldu ziran azkenean Orozko'ra Lorailla'ren 19'an.

Biamamonean, Orrilla'k 20, Zalao'ko abade jaunaren etxean buru-zagi agintarien lenengo ta ain gurarizko batzarra egin zan. Aldundegi'ko Lendakariak olantxe aukeztu eutsen gaia: gudaldia jarraitu, gudari-talde gitxiak

eratuz edo bakearen baldintza egokiak artu. Guztiok bat eginda gudaburruka baztertu eben Tacito antxiñako idazlearen esakun bat gogoratu: "Geinetan gudea koldar, doillor ta ziztriñak gura ebela, baiña egin kementsueneren arrisku, nekaldi, lan ta ukamenez". Beraz, bakea egiteko artu-emonak astea erabagi eben, eta olan agertu eben batzar agirian: Orozko aranean, mille zortzireun ta irurogetamabi'ko Orrila (maiatza)'ren ogeian, On Antonio de Arguinzoniz, On Fausto de Urquizu (jarraian, beste bederatzi izen) gure gudaldia ezin leitekela jarraitu, etaba.....

Batzar-agiri edo Acta au batzarkide guztiak izenpetu eben ta On Antonio de Arguinzoniz eredu edo zirriborro bat irakurri Duque de la Torre arerioen Gudalburuai emoteko.

Alkarbide (Kominikazio) onetan Gudalburuari esaten yakon Bizkaia'n On Karlos Erregearen alde urten eben guztiak parkamen amnisti osoa (orokorra) emotekotan su-izkillu ta sutarma guztiak itxiko ebezala. Eta au ta beste baldintza asko dan-danak artu ezik, gertu egozala gudaldian aurrera ibilteko bulartsu, kementsu ta bildur barik.

LETONA'K

QUMRAN'GO ESKU-IDAZKIAK

XII GORAPEN-ABESTIA

VII SORTA

¹Bildotsa lez isildu nintzan ni.

²Nire besoa atarata geratu zan nire soin-enborretik eta onen latzaiketatik;

³nire oiña zingara sartuta egoan, eta nire begiak, gaiztakeria ez ikusteko itxita; nire biotza arrituta, Bellal'gandik etorren asmo gaiztoaren aurrean.

⁴Aren izakerea agertzen zanean, etxeko ondopeak astindu eta nire azurrak banandu egiten ziran. Nire erraiak, itsasontzia ekatxaren erdian lez ikaritzen ziran.

⁵Nire biotzak dardar egiten eban ondapenaren aurrean; galdutzat jotzen neban nire burua, guztia yatan naaste-eragille, eta aren pekatua ondapen-bide.

XII GORAPEN-ABESTIA

⁶Eskerra emoten dautsudaz, Jauna, zeure indarrak eutsi daustazulako,

⁷eta, koloka egin ez dagidan, zeure espiritu santua isuri dozu nigan. Sendotu egin nozu dongakeri-epailleen aurrean.

⁸Arein azpikeriak arren, ez dogu lateku nik adorea galtzerik, ezta zure Alkartasunari uko egiterik be. Bestetara baiño: nitzaz torre sendoa egin dozu, ormatzar garaia.

⁹Nire etxea arkaitzean jarri dozu eta nire aziak ondope betikoen gaiñean. Nire ormatzar guztiak ezek ezin astindu aal izango dauzan zutabe gogorrez izan dira sendotuak.

¹⁰Zuk, ene Jainko orrek, orbela lez jarri dozu santutasun-batzarraren aurrean. Iraunkor egin dozu nire biotza zure itunpenean, eta nire miiña zure irakatsietan.

¹¹Ez dago barbarik espiritu ondatzaillearen agoan. Zure miiñari ez yako erantzunik bururatzen. Erru-sumeentzat, mututasuna. Ezpan guzurrezkoak dira. Auzian nire erasotaille guztiak galduko dozuz. Zintzoaren eta gaiztoaren arteko amildegi-munarra izango naz ni.

¹³Izan be, ezagutzen dozu Zuk egitada bakotxeko moldea,

banantzen dozu Zuk erantzun bakotxeko egitasuna. Nire biotza Zeugaitik dago nasai;

¹⁴zeure egiaren indarrak sendotzen dozuz nire oinkadak

zuzentasunaren bide-zidor gatxetan, biziaren lurraldeariño zeure aurrean ibili naiten

¹⁵aintzaren zidorretatik, iñoiz be txikiagotzen ez dan garaipenaren zidorretatik.

¹⁶Ezagutzen dozu Zuk zure morroiaren izakerea. [Zeuri oratzen dautsut...] [...]

¹⁷[...] gordelekua zeure indarrean billatzeko, gizonagan niretzat euskarririk ez dago-ta;

¹⁸ez dago [zapaltzailleakandik] askatzeko itxaropenik.

Atzeraka egitea [...]

Nik zeure agiari oratzen dautsat.

Zeure maitesarre ugarian dot ustea.

¹⁹Zeuk eragiten dautsazu aurrera biziari eta azierazoten dozu kimu barria.

Zeugandik ataraten dabe euren indarra [maastiko] aienbegiak.

Zeugan jarri daike ustea edonok.

²⁰Zeure itunpeneri oratzen dautsat.

Zeuk diñozunari itsasten nakio.

Biotz-bigun diranen semeentzako aita izentatu nozu;

²¹berba egiteko gauza diranen irakaslari.

Bularreko batek amaren bularretaruntz lez makurtu eben euren agoa,

azten dabezanen altzoan ume batek lez.

²²Geitu egin zenduan nire indarra ni zemaitzen nenduenen aurka.

Banandu egin zenduan nire aurka alkar bat egiten ebenen taldea.

²³Nire aurkako guzurkideak lastoa aizearen aurka lez ziran.

Nire indarrak burdiñazko estunak lez estutzen eban gaizkilleen [iztarria]

Zeuk, ene Jainko orrek, emon zeustan indar ori,

Zeuk sendotu zenduan nire espiritua.

²⁴Goian egiten dau dizdiz Sabbateko (Zapatuko) argiaz zure aintzarako.

²⁵Bai, Zu niretzat betiraun-argia zara,

Zeuk egin zenduan paradisuari dizdiz egiten dauan argia.

²⁶Oraindiño be, bearbada [...]

BASERRIA

IZKUNTZAREN ABIA

Emen, jogok, benetan, gure izkuntzaren abia. Jakituria, maitasuna ta bizia.

Ardien bizitza galdu barik, argibide barriak sortu zituenu gure arbasoen barruetan.

Beti, oldotzen, beti, asmetan ta aurrerapideak sortzen. Euskaldunaren lei au berezkoa izan dot giza aro guztietan gaur artean.

Emen, zabaldu bear joan gure berbeta mamintsuak. Aldi onetan, geroago ta lan geiago artzen jok bere gain euskaldunak.

LURRA LANTZEN

Lurraren sasiak argituz, adimena argitzen joiak; lurrari ale gorriak emonerazoz, adimenari arnari oparoak sortu eragiten jeutsezak. Gizona asi zuan lurra landuten Bibliaren esanera.

Abere barriak ta euren bizitza ez zuan edozelakoa.

Len, mendietan ebiltzenak, orain, aro barrian, lurrak lantzen lugiñen aginduz.

Emen, mundu barri bat askoz zabal ta jakintsuagoa agertzen dok.

Lurrak eta abereak, danak, gizonaren esana egingo juek bizitz zabalagoaren sorrera ta eginbidean.

LAN GATXA

Baserrilana artzaigoa baiño askoz korapillotsuagoa agertzen dok. Lurraren almenak, giroa, indarrak ez dituk bertanberakoak; egiz, kontuan artzeakoak baiño.

Lugiña, arduratsu, ibili zuan basetxe, sendi ta lagunarte txikiagoko bizitza orren sorkeran.

Millaak eta millaak urteetan iraungo eban bizitza sortzea zuan. Gaur be, gure biziaren oiñarri dok, aldi aretan asmau eben etxe ta sendi bizitza.

SENDI-GIROA

Etxeko bizitza gozo ta alkar laguntzailleak arazo barriak, ugari, ekarri jitian gizartera.

Aurrerapidea ezin esan alakoa. Buruko min sendoak sendi batzarrera ta lagun artera ekarri zituenak..

Lagunak be, itzez, berbaz erantzun bear jeutsen lan-gorabera ta ainbesteko bizitz giroari.

Guztiori jakituri geiago eskatzen jauan. Berba barriak, esakerak, agertzeko moduak...

ESAEREA EDERTZEN

Euskera edertzen, liraintzen ta mardultzen joian Euzkadi osoan; ta era berean, Bizkaiko izkuntza jaiio, azi, ta mamintzen zuan Bizkaitar semien irudimen ta argi zabalak agintzen eutsen eran.

Bizkai-lur onen semeak, beti, ikusi jituat, apal, berbeta on, jakintsu ta aberatsa sortzean ta bitxirik ederrena sortu ondoren.

Ori-gaitik, bear ba da, erriak, geien, darabilen izkuntza Bizkaiera dok.

AUNDIKERIA

Beste alde batetik ostera, gizon apala baztertua ta zapaldua dala, ez al dok ikusten gizartean...

Gizadia, beti, izan dok aundikeri zaletasuna... naita otska, zarataka ta arrantzaz ibili, goratu egin nai dala esaten, gero, ondoren, zoritxarrez, zapaldu egiten dan bizitza apala ta egi-zaletasunezkoa. Nire sorleak eta jagoleak euzko basetxeak izan dituz millak urteetan, ta aurrerantzean be, eurak izango dituk.

BIZKAIERAZ

Bizkai izkuntz, nire izatearen jeinua, mendi, zelai, ibar, arru, arizti ta arkaitzetakoa dok. Bizkaiak edergallu onek bere altzoan jaukezak. Ta onek gaiñera, edertasun guzti ori artu, mamurtu ta euzko gizadiari pentsabide ta maitasunak, erarik onenean, agertzeko duin izan diran, ta gaur, diran idazlari, bertsolari ta olerkariak bere-bereak jituak.

EUSKEREA ERREGIÑA

Norbere bizia iñor-gaitik emoten daunak, dana emoten jok. Ni, eskoletako pentsabideakaz ta aundikeriekaz il nai ba-nozue, ama, etsi ezinik, negarrez, ikusiko nozue, ta jaiio nintzan Bizkaiko lurrean, baserritarreen buru, biotz, agoetan ta eleizako aldaretan, ezeren lotsa barik, erregiña izango nok.

PAULIN

TXILE

Extua ta luzea, oso luzea, Ameriketako dago Txile; Ande-Mendien maldan; sarkalderuntz. Iparretik egoara ba-dauz 4.200 k. Sorkaldetik sarkaldera berriz, batez-beste, 100'en bat.

Txile'ren luzetasuna zantxat aña-koa dan oartzeko, eizu kontu Txile inglenderriko itxas-ertzean, adibidez Dober'ko kaiean, asiko ba'litz, Frantzi, Espaiñi, Arjeli, Sahara osoa, eta Niger'en erdia baiño geiago igarota, iritxiko litzakela ia-ia Nijeria'ren mugaraña.

Ta, naiz estua izan, ain luzea bait da, Txile'k Espaiñi'k baiño kilometro laukoi edokilometro kuadratu gaiago dauz: 756.945. (Españi ez da 500.000'ra iristen).

Izugarrizko luzera ortan era guztiko eguraldi-giroak dira. Iñoiz ere euririk egiten ez dauan lurraldeetako bat egoaldean, eta beerago, egoalde-ago, otza, elurra, eta izotza, ta "glaziar" esan oi yaken izotz-ibaiak. Gerrialdean berriz, biziro atsegiñak eta emankoiak dira Txile'ko landa eta alorak.

Bai nekazaritzaz, bai meatzaritzaz, aberatsa da Txile, lekaroak berak ere meatz-emaille oparaok bait dauz.

Naiz Arjentina'n eta Uruguai'en aña ez, ugari izan da Txile'n ere euskaldun-jendea. Oso ospetsuak batzuek. Erzilla ta Zuñiga'tar Alontso, adibidez; jatorriz bermeotarra; "La Araucana" deritzan bertso-lan mardularen egillea. Ta Balmazeda, Figeroa Larrain, Duhalde, ta Aguirre, Txile'ko errepublikaren Lendakariak. Mixiolariak berriz..., zenbatu ezin aña. Esan geinke zalantzarik ga-

be, Txile', kristautasuna euskaldunek zabaldu dabela.

* * *

Txile aberatsa dala esan dogu. Baiña Txile'ko aberastasun ori guztia 200'en bat sendiren eskuetan dago. (Sendi oietan, asko, eusko-jatorri-koak dira!). Jenderik geienak, doi-doi lortzen dau bizitzeko barrezkoa dana. Eta jende askok, ez dabe ori ere lortzen.

Gaur, berriz, iñoiz baiño okerrago dago Txile. Lurreko erririk txiroenetakoa biurtzen ari da. Bertako diruak ez dau ezer munduan balio. Meatzaritza eta olagintza geldirik dagoz. Langilleek ez dabe zer egiñik aurkitzen...

Nola jausi dan ain beera Txile maitagarri ura? Militarrek ondatu dabe. Eskuetan artzen daben guztia ondatzen bait dabe militarrek. Beste laterri edo estatu askok eta askok bezala, Txile'k daun etsairik aundiena eta gaizkilleena bere gudaroztea da.

Diktadura odoltsu eta oñazegarri asko ezarri dabez militarrek, atzo eta gaur, munduan. Diktadura oietan zikiñenetako eta igugarrietako bat, Pinochet Ugarte'k Txile'n ezarri dau na da. Ala ere..., ez da iñolaz ere Franko'k guri ezarri euskuna bezain gogorra.

Bear ba'da, Txile'ko gudaroztea beti paketsua izan dala entzuna izango zara. Ez da ori zearo egia. Pinochet Ugarte'ren aurretik ere maiz jagi izan bait da matxinadan, agintaritza artzeko, Txile'ko gudaroztea: 1932'an, 1927'an, 1924'ean, 1891'ean...; ori, askatasuna lortuta bereala izan ebezan anaiarteko borrokak zenbatu gabe.

Ala-ta guztiz, Iber-Amerika'ko beste gudarozteekin konparatzen ba'dogu, esan daiteke bildurrik gabe Txile'koa ez dala indarkeri-zalea izan.

* * *

Euskaldunentzat, pake-zale izan dan gudarozte ori, Pinochet Ugarte'ren zuzendaritzapean, diktadura ipintzera zer eraman zuan jakitea, garrantzi aundiko gauza da.

Esan dogu, Txile'ren arazorik larriena bertako aberastasuna gaizki edatura egotea dala: batzuentzat, ia-guzia; besteentzat, ia batere ez.

Azkeneko bi lendakariak, Frei kristau-demokrazikoa, eta Allende sozialista, saiatu ziran ezberdintasun ori moztutzen. Frei'k aurka izan zitan eskubitar guztiak; eta baita auek menderatzen eben Senatua ere. Allende'k berriz, Txile guzia izan zuan aurka. Eskubitarrek, azkarregi zebilela eta aurreraegi zijoala botatzen eutsoen aurpegira. Ezkertiarrek berriz, oso geldi ari zala eta oso motz gelditzen zala. Eskubitarrek kazulak joaz agertzen eben beren osteketa; ezkertiarrek berri eten gabeko lan-uzteen bidez ia eriotzaraña ondatu eben nazioa. Oroi kamioi-zaiñen lan-uztea.

Eskubitarren bildurak eta ezker-tiarren urduritasunak, jaurri-eziña (gobernu-eziña) biurtu zuten laterria, eta orrek eman zion gudarozteari matxinadarako kemena..., eta arrazoiaren itxural!

Ez ote dau emen ere batzuen bildurak eta besteen presak gudaroztea matxinadara bultzatuko?

LATIEGI'TAR BIXENTE

EUSEBIO ERKIAGA, OLERKARI

Eusebio Erkiaga'k, 1959-12-3'an, Txomin Agirre Nobela-saria jaso ebanean, jai bat egin eutsoen Bilbo'n Euskaltzaindiaren etxean, saria irabazlearen eskuetan jarritz lagunarte gozo samurrean ordu batzuk emoteko. Une orretan Fernando Mendizabal A. Frantziskotarrak bere itzaldian onela itzezin euskun: «Eusebio Erkiaga euskaldun euskalduna dozu azur eta mami; Eusebio Erkiagak euskerazko gogoa dauka, euskerazko bizitza, euskerazko anima. Eta orren lur gozotan azitzen dan landareak, mardula eman bear naitaez frutua» (*Eusker*a, 1960, 422 orr.).

Itxas-ertzeko uri atsegingerrian, Lekeitio'n jaio zan Erkiaga, 1912-9-4'an. Txikitan, diño berak, eskola-aurreko urteetan, lekaime izaniko emakume baten etxean, bere etxetik urr-urre, ikasi zituan letrak eta itzak gaztelaniaz irakurten, baiña an euskeraz berba egiten eben, bai irakaslemeak eta bai umetxuak. «Luisa monjia» eritxoen ari errikoak.

Erriko eskolan zan laster ata amalau urterarte ortxe jarraitu eban; batzutan maisu alperra eta geroago gizon zaarregia gertaturik. Amar-amalau urte bitartean elizako triple nagusia be izan zan, musika taldean klarinetea jorik; baita ezpatadantzari txiki be izan zan 1923-garren urteko

iraillera arte. Garai aretan, errian bertan Mertzedetako prailleen ikastegira zan, ekiana zerbait mardoagotu guran. Merkatalgo gaiak ikasten asi zan, orraitino, «libre» mailan, eta azterketak Bilbo'n egiten zituan urtero Azkenez, Bilbo'n bertan, ikastaroak burutu eta salerosle maisu edo «perito merkantil» tituluaren jabe lotu jakun.

Ekonomi-egoera larri aretan, ba-zan lanik-eza bazterretan. Eta 1936'garren urte-asieran Bizkai-Bankuan sartzea lortu eban, eta orduan jadetsitako langelan erre izan dauz 42 urte, beti lanari zintzo emona. Gerra-aldian, bere zeregiña albora itxi barik, euskal arloan be ari izan jakun: 1937'gneko Urte Barri egunetik «Eguna» eritxon euskal egunerokoa atera eban Eusko Jaurlaritzak eta eguneroko orren ardurea oneik izan eben: Abeletxe, buru, eta Luzear, Luki Artetxe, A. Zubikarai, E. Erkiaga eta Jose Maria Arizmendiarieta laguntzaille. Urte orretako bagillaren 16'rarte agertu zan esan egunerokoa. Lan txalogarria, zinez, gazte mordo oneina, guk guda-oifnean geien irakurten genduan albistaria, euxe zan eta.

1943'an ezkondu zan Erkiaga Begoña'n Jose Mari Arizmendiarieta jaunaren aurrean, emazte Mertxe Telleria bilbotarra izanik. Lau seme-alaba izan ditue, iru neska-

tilla eta mutil bat. Orain Erkiaga, aitita bilakatua, etxeko abaro gozora baztertua dago. Baiña ez lanetik urrindua.

Emen euskal arloari loturik egin ditun lanetatik bana-ka batzuk bakarrik aitaturko doguz. Euskaltzain osoa da 1963'tik. Barruko dei berezi lez gaztetatik alegindu zan ekian bizkaiera sakontzen eta gipuz-napar-lapurteraz be jabetzen. Eta gero, euskal erri osoan zabalduko ziran Erkiaga'ren lanak; txapelketarik iñun ba'zan, an izango jakun Erkiaga be lantxoren batekin. Ona lekeitiar ospetsu onen idazlanetatik sail bat:

1) *Lora gorriak, Irtika lana*; 2) *Nekazartarena*, olerki saritua; 3) *Sifisgogorra*, teatru-lana; 4) *Aspaldiko Meigret*, nobela euskeratua; 5) *Axular handiari Ohore*, Sara'n saritutako olerkia; 6) *Kanpaien atseka-bez*, Bedoña'n saritutakoa; 7) *Arranegi*, nobela; 8) *Araibar zalduna*, 1958'ko D. Agirre Nobela saria irabazi ebana; 9) *Batetik bestera*, 1961'ko D. Agirre Nobela saria jaso ebana. Eta abar eta abar.

Erkiaga'ren lanak, naiz olerkizkoak naiz teatru ta itz-lauzkoak, zentzunez taiutu ta biribilduak dituzu. Baronon idaz-tankeraz, esan dabe iñoiz: «Iztun ederra da beti, joria eta aberatsa, eta beste guztiaz gaiñetik jatorra. Jatortasun ori, noski, ain egoki derabilen jatorrizko Bizkai'ko euskal-kiari zor dio» (*Egan*, 1962, 4-6, 404 or).

Olerkari.—Nobela ez-zez koplak be, koplak ederrak osotu dauskuz Erkiaga'k. Nik iñoiz idatzi dot, Donosti'z gero, Lekeitio dogula eusko-itxas egaletako uririk ikusgarriena. Olan dogu, izan be. Eta emengoxea da Erkiaga; ez da arritzekoa, beraz, berau eder-zaletasuna noiznai eta nun-naitik dariola ikustea. Bakotxak daki ederra zelan jaso eta barnean sort-azo, onek onela arek arela. Modu askotara adierazo gengike ederra, baiña olerkia da ortarako biderik egoki ta oparoena. Eta Erkiaga gazterik asi zan olerkitxoak, ederrez blei-blei, jantzi ta eskintzen.

Eder jaku guztioi, olerkarioi batez be, geure sorpenak —geure biotz-semetxoak— argitara emotea. Batzuk atan be, ekartxo bat aragitu orduko, or datorkiguz bera txaloka ta iripartsu eskintzera; beste batzuk —apalagoak bear ba'da?— ez dauskue orrenbesterik egiten. Erkiaga'k be ez dausku oraindiño poesi-liburu berezi-berezirik eskeiñi; eta alan be ba-da bazterretan lekeitiarraren olerki-bilduma eder bat eukiteko gurari ta gogo bizia; konta ezin-ala bertso-lan daukaz, eta orreikaz osoturiko liburu eskukoi bat nai genduke. Ainbat gauzatarako zenbat nai diru dauka-gula, ez diñogu ba? Ia ontarako be apurño bat eltzen dan.

Azken garai ontako aldizkari ta eguneroko guztietan idatzi dau Erkiaga'k, eta or dagoz beronen olerkiak: «Gernika», «Egan», «Olerti», «Anaitasuna», «Euzko-Gogoa»,

«Jakin», «yakintza», «Euzko Olerkiak», «Euzkerea», «Ekin», «Euzkadi», «Eguna», «Agur»... Sakabanaturik dagoz, udazkenean aize-zirkiñez jausi orri laruen antzera. Barrero esanda be, merezi leukie sail bat beintzat jaso ta txorta bikian lez argitara emotea. Gaur-egun, eta leendik be, Bizkaia'n dogun olerkaririk gorengoena berau dogu.

Ona miazka ta ausnar dazigun «bethi gose» deritxon olerkitik iru aapaldi:

«Goizero izar hori agertzen denean soina dut katigu, geldi, lo artean; Iguzkik galdurra orduan harroen, ta ni, sogiteke, arazoan barnen...

Zerumin bizi bat, Iaungoiko-gosea, gizonak barnean dadukan lezea; alperrik bilhatu laketa atsegin, lehia min horren hasetzea, ezin...

Begiok idortuz, esker-nigarretan zeruko zituak niretzat aletan; egunez ni sorgor bizitz zidorretan, ta Zu, Iaun, gauean bihotz-laphurretan.»

«Gernika» aldizkarain dator, eta iru estrofa ditu lantxo apain onek, irurak maisuki egiñak. Eritxiak ezalkeran bakotxak dau bere zera, bere gustua; olerkiak egikeran, bardin, bakotxak dau ederra jaso, sortu naiz adierazteko era apartekoa; eta ez gitxitan jaso izan da oni atsegin jakona beste ari ez izatea. Orixegaitik bego bakotxa bere lora-adarraz. Erkiaga'ren poesi-lanak, baiña, edozeiñen atsegiña egiteko bestekoak dira.

Zuk, irakurle, dakizunez urtero lez aurten be, J. L., «Olerti-Eguna» ospaturiko dogu. Ogetaz urteetan emen izan jaku Erkiaga, egun begiko orri berea emotera etorrita; sarrri eroan ditu sariak, lanak irakurri, itzalditxoak egin, eritxiak aurrean ipiñi, eta zer asko, poesiari buruzkoak geienetan, eztabaidatu ta argiz ornidu. Guzti origaitik eta bere olerki-dedua merezi dauan maillan jarri nairik, guk, Larra onetan alkartzen garienok, igaz orrela erabagita, aurten berari egin nai izan dautsagu omenaldi bat, egun orretan, datorren azillaren 20'an, Kristo Erregez; baiña berak, bein eta barriz esan daustanez, ez dau oraingoz beintzat olakorik nai. Eta ez jako egingo. Baiña ari eziñik, Mantelrola, euskal apaiz idazle errikoi eta olerkari zorrotzari egingo dautsagu omena, bere olerkiak irakurri eta azalduz batez be.

ZORIONA LORTU

Tibaesko Beneditino lekaideen konbentu ospetsua ikustera joan zan aundiki bat.

Lendik be ezagutzen eben lekaideak eta pozarren artu eben.

Bitartean atarian itxi eban txoperra. Itxaron eta itxaron eta aundikia ez zan iñondik agiri.

Barruruntz egin eban berak be. Atezaiak barruraino sartu eban konbentua ikusi egian.

Txoperrak lenengoz ikusten ebazan lakaideak. Atezaiaren jantziak arrituta eukan-da esan eutsan : ze lan, ze zeregin daukazu ba zuk? - Konbentuko atezaiak naz. Goitik bera begiratu eutsan txoperrak. Lekaidearen jantzia be ederra begitandu jaken eta jantzi arek izen eta irabazi aundiak ekarriko eutsazala-ta, ba-diñotso lekaideari: Zu, ta niret-zat ez ete egongo ba tokitxu bat emen?

Lekaide izateko deia izango ebala-ta lekaideak ba-doñotso: Bai orixe! Egongo ez da ba? Laster izango da emen Aita Nagusia ta berari esango dautsagu ta beingoan artuko zaitu.

Pozarren egoan txoperra ta amets aundiak ebazan bizitz-bidea zabaldu ta bigundu jakolakoan. Alan be aurrrera egin baiño len da-diñotso atezaiari: Zu: zenbat irabazten dozu zuk? Asko ezta?

—Zenbat irabazten dodan? Zerua.

—Besterik ez? — erantzunen dau arrituta txoperrak.

Ez ekian orduan txoperrak zerua zer zan. Geroago ikasi eban.

Konbentu atara biurtu zan barrero txoperra urte batzuk-barru ta bertan geratu.

Lekaide egin zan. Ta aundiena: bertako atezai izan zan urte askotan.

AGUR ERREGIÑA

Agur Erregiñ, erruki-Ama,
ziteri gozo-garbia,
bizitza, gozo ta itxaropena
biotzarentzat alaia.

Agur: Zugana gatzos eskean-
begiak malkoz bustirik,
Ebaren seme-erbestetuok
goiko zerutik jaurtirik.

Negar-malkozko erbestea da
gogoarentzat ludia;
arantz zorrotzez estaldua ta
espin-tantakin bustia.

Izan Zu gure bitartekoa,
aldele zintzo-kemena;
biurtu arren erruki-maitez
zure begiok gugana.

Erbeste enen endoren, Ama,
agertu guri AUTIA,
zure erreietan bein sortu zendun
Seme maite-onestsia.

O biotz bigun, errukiorra,
Ama on, samur-ertzia,
Birjiña garbi, birgun-gozoa,
lili aratz ta joria.

Otoitz egizu gizonen alde,
iritxi daigun zerua,
Zu bai zaitugu esker-iturri,
Ama on eta altsua.

Otoitz zerutik... izan betiro
lurrean gure onduan;
bizi gaitzean zeruan.

BILBO 1931

OLDOZKAIK

1. Sasoeizko galena zerutiko saria da.
2. Ez dautzut opa danak zeuk gura dozun lez gertatzea.
3. Zoritxarrik aundiena zoritxarra merezi izatea da.
4. Ez da jaio oraindik, besteak ezetsiteko eskubidea dauan gizona.
5. Bi dira zoritxarrik aundienak: zoriensu izana ta zoritxarra ezin eroste.
6. Eizariak ipiñitako sareak lez dira zorrak: errez da eurretan jaustea, baiña gatx eta zail urtetzea.
7. Iñoiz eltzen ez diranak dira gaien baten bildurrik aundiena sortzen daben zoritxarrak.
8. Bizitza zoriensua auxe da: beti izan zer egin, nor maite izan eta zerbait itxaron.
9. Norberaren buruaganeko itzala da erlijioaren urrengo biurri guztien galgarik onena.
10. Nausitasun aundia aukitea, joputasun aundia eukitea be ba-da.

GOIRIA

EUZKADI, NIRE MAITASUNA

Gabriel Celaya
(Penúltimos poemas)

Itsasoaren alaitasun, piñuen dardarea.
Gardentasuna zabal eta urrunen baietza,
Euzkadi, ene maitea, Euzkadi elbidetua,
ezkutuz betea, gogoia baiño aruntzago.
Euzkadi, ez Kastilla arroa ta bakartia,
idorra ta guri ezer bere ez diñoskuen
istoriz betea, Euzkadi ene aberria,
igaratzen dan aizeaz burujabetzen dana
batzuetan irriparka burua atzeratuz
guri deituko baleusku lez, jakin baleki lez,
gu ez garala gaztelar mamu, mozoloak,
baizik euskotar jator, bulartsu eta biziak.

MUNIAATEGITAR SABIN

ASIERAN

Blas de Otero

Galdu ba-dot bizia, denporea, jaurtigi
neban dan-dana, eraztun bat lez, uretara;
galdu egin ba-dot abotsa sasi artetan,
itza gelditzen yat.

Jasan ba-dot egarria, gosea, neurea
zan dana gertatu zan ezerez utsa zala,
itzalak moztu izanda-dodaz ixillean,
itza gelditzen yat.

Ezpanak be zabaldu ba-dodaz ikusteko
nire aberrian arpei garbi ta garratza,
ezpanak zabaldu ba-dodaz ixillean,
itza gelditzen yat.

MUNIAATEGITAR SABIN
(Verso y Prosa'tik)

BIZKAIERIA BIGARREN MAILLAKO EUSKERA?

Mungia aldeko erri txiki batean «ebaluazio» (taiutze) batean, berrogei ume ingurutik, lauk izan ezik, beste danak geroko itzi ebezan edo «suspensio» atara eben euskera jakingai edo «asignaturan».

Ume guztiak euskaldun euskaldunak dira...

(J. I. Mendibe'k IGANDERO DEIA'N)

..., baiña Bizkai'ko euskaldunak, BIZKAIERAZ egiten daben euskaldunak, bizkaitar euskaldun danak egiten dogun lez, BIZKAIERIA bakar-bakarrik dalako Bizkai'ko euskerea!

Eta or dago obena edo pekatua... «El batua» zaleentzat, BIZKAIERAREN areriontzat, BIZKAIERIA bigarren edo irugarren maillako euskerea da... Eurentzat Bizkai'ko ikastoletan «el batua» mordoilloak eta erdereak bakarrik daukie balioa... BIZKAIEREA, bizkaitar guztien euskereak, ikusten danez ez dauka baliorik ezta euskerazko azterketarako be!

Euzkadi'k eta Euskereak, zenbat irabaziko leukie «ebaluazio» ori egin daben «irakasleak» auntzak jagoten mendian egongo ba litzakez!

* * *

Mungia aldeko 36 umetxo bizkaitarrakaz sapokeri ori egin daben gizontxoekaz..., zer egingo ete eben gure arreko arbasoak, antxiñako bizkaitarrak, 1470gko. Jorraillaren 27'an, gudaketa arrigarri ta gogor baten ostean, Mungia'ko zelaietan españarrak azpiratu ta kanpora jaurti ebezenak?

«Antxiñako bizkaitarrak» —Sabin'ek esan ebanez— zindoak eta abertzaleak ziran eta euren arerioak kanpora jaurti ebezan».

Areik, uste dat ba, artuko ebezala girosti sendo batzuk, ondo berotuko eutsoezala euren eperdiak gizontxo orrei, ta Mungia aldetik kanpora jaurtiko ebezala!

Mungiarrak! Mungia aldeko baso ta mendietan amaitu dira gorostiak?

* * *

Bizkaitar gurasoak eta guraso Alkarteak! Askok dakizuen lez, gure guda aurrean orduko kanpotar maisuak, euskaldun neska-mutillei euskeraz egiteagaitik eraztun bat atzamarretan ipinten eutseen.

Adorez eta gogo berroz arduratzen ez ba'zarie zeuen seme-alaban ikasketakaitik, ez ba zarie benetan alegintzen zeuen seme-alabak zeuen euskerea, BIZKAIERIA, ikasi dagien, Mungia aldeko jazoerea ikusita gero, ez arritu ta ez ikaratu egunen baten zeuen seme-alabaren bat agertzen ba'jatzue eraztun bategaz atzamarrean, ikastolan (edo ikastetxean) BIZKAIERAZ egiteagaitik!

* * *

Arritzekoa da bizkaitar gurasoei jazoten jatzena... Zeuek izan zarie —zenbat neke ta naigabegaz— ikastolen sortzailleak, zeuek emon dozue dirua, ta izerdia askotan, ikastolak sortzeko eta zeuen seme-alabak zeuek gura dozuen eziketean izan dagien, eta zeuek egiten dozuen BIZKAIERIA ikasi dagien...

Eta ordaiñez... zer lortu dozue? Orain-arte laguntza andirik ez dot uste, ta aginpideak be gitxi... Ain gitxi ze, ez bakarrik Irakaskintzako Erakundeak, edozein irakaslek, ikusten dogunez, Bizkai ko ikastoletan BIZKAIERIA biurtu leike bigarren maillako euskerea!

Beste batzuk, ba, aginpideak eta zuek, gurasoak, erantzun-bearrak!

* * *

Laster asiko da beste ikasturte bat... Gurasoak oituraz dakizuen lez, guzur-irri ta lepoko xartako maltzur-artean, olako edo antzeko berba koipetsuak entzungo dozuez: «Nasai egon... Bizkai'ko ikastola ta ikastetxeetan zeuek egiten dozuen euskerea, BIZKAIERIA, irakatsiko jake zuen seme-alabai... Ori berezkoa da!».

Jakiña, berezko dana! BIZKAIERIA Bizkai'ko erriarena da ta iñok ez dauka eskubiderik baztertu ta zapaltzeko! Zergaitik orduan Mungia aldeko jazoerea? Zergaitik beste bizkai'ko ikastola ta ikastetxe askotan be, BIZKAIERIA biurtu da bigarren maillako euskerea?

«El batua» zaleen elburua ori dalako... Baiña oker dagoz, Bizkaitarrak ez gara menpekoak! Ez orixe!!!

Arpegia emon eta agiñak erakutsi ba, «el batua» zale ausar orrei... Ostantzean, egunen baten kaka burutik egingo dauskue ta, ondiño, eskerrak emon bearko dautseguz!


BILBO'TAR JON E.

EUSKERAZALEAK

ZER

Colón de Larreátegui, 14 - 2.º dcha. BILBAO-1

Bizkaia'k bere Kutxa dauko



CAJA DE AHORROS
VIZCAINA



BIZKAIKO
AURREZKI KUTXA

Laguntza aundia

50 PEZETA